

B

BARREN

Errelebo bila

Lagunak Pilota Eskola

TOKIKOM



**Batxilergorako Eskaintza (A eta D)
2015-2016**

**Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak**



943 12 16 98
azitain@lasalle.es

Web: www.lasalleeibar.com
Twitter: @LaSalleEibar

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Webgunea: www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEA, Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Inma Mugertza, Ander Izagirre INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Zorionak, eta eskerrik asko!

Zorionak! Zorionak larunbatean Elgoibar irribarrez bete zenuten guztioi. Zapatuan argi geratu zen ari garela, poliki-poliki, erabakitze eskubidea ehuntzen.

Nahiz eta askotan ezinezkoa ematen duen elkarrekin jardutea, argi geratu zen posible dela eta beharrezkoa dela. Izan ere, elkarrekin baino ezingo dugu aurrera egin.

Elgoibarko Gure Esku Dago taldekook zer esango dizuegu ba: gustura baino gusturago gaudela lortutakoarekin. Kolorea, musika... irribarrea nagusi; horrela ikusi genituen ume, gazte, heldu eta nagusiak. Ez dago hori baino sari hoberik.

Eskerrik asko hori guztia ahalbidetu duzuen guztioi: modu batera edo bestera parte hartu duzuenoi, oihalak josten fin-fin aritu zinetenoi, azpiegituran lagundu zenutenoi eta plazara eta Maalara hurbildu zineten guztioi

Ezer ez da amaitu, ordea. Datozen hilabeteetan ere, herriko kaleetan ikusiko gaituzue kamiseta, sarrera eta abar saltzen. Hurrengo erronka hor dugu, eta hitzordua jarrita dago: ekainaren 21a. Herritarrok izan ginen pasa den ekainean Durango eta Iruñea elkarlotuz irribarrea osatu genuenak, eta herritarrak izango gara, aurtan, ekainaren 21ean, bost hiriburu erabakitze eskubidearen aldeko borondatez bete teko ditugunak.

Herri bat gara, erabakitze eskubidea dugu, herritarron garaia da.

Gure esku dagoelako!

Elgoibarko Gure Esku Dago

XXII. Jose Gurrutxaga krosa

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean, apirilak 26an, ospatutako XXII. Jose Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztioi: Iturri taberna, Usua Kafetegia, Jai Alai, Arkupe, Tantaka, Mahats Ardotegia, Ametsa Kafetegia, Larre, Original Komunikazio Grafikoa eta batez ere Elgoibarko Udala, Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, Alcorta Forging Group, Egile, Danobat Group, Kideok S.L., Laserlan, Kutxabank, BM, El Diario Vasco, Biena Haroztegia, Elgoibarko Lagun Taldea, Egotoki, eta Gare Radio Club.

Bestalde, gure eskerrik beroenak parte hartu duten neska-mutilei.

Datorren urtean, apirilaren 17an, ospatuko den XXIII. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

J. Gurrutxaga Krosa Batzordea

Mila esker, Mendaro

Lerro hauen bidez, Mendaroko Gure Esku dago batzordekook eskerrak eman nahi dizkizuegu erabakitze eskubidearen alde zapatuan ospatu genuen Joste Eguna antolatzen eta girotzen lagundu zeniguten elkarte, eragile eta norbanako guztioi, eta baita nola ez, egun hori gurekin batera ospatzera batu zineten herritar guztioi ere. Gure eskerrik beroena Mendaroko Udalari, Bizi Poza txarangari, Trikititarrak taldekoei, musika eskolako zein parrokiako abesbatzetako lagunei, Ana Alberdiri eta bere taldeko dantzari gazteei eta Iñigo eta Amaia Debako trikitilari lagunei. Jarrai dezagun elkarrekin bidea egiten, etorkizuna gure esku dago eta. Egin dezagun historia hemendik aurrerako.

Mendaroko Gure Esku Dago

ARGITARATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
biZi-biZiXal



Erretratu zaharra



1959

Aste honetako erretratu zaharra Iciar Beristainek ekarri du BARRENEKO erredakziora. 1959. urte ingurukoa da, eta Maalan aterata dago. Argazkian ageri direnak lagun onak ziren, eta sarri egoten ziren elkarrekin. **Ezkerretik eskumara:** Benino Agirre, Julian Lizundia (†) eta Juanito Ormaetxea (†).

ESKERTZA

JOSE MANUEL ANSORREGI EGAÑA

"Ibiri"

*Hegoak ebaki banizkio
guria izango zen,
ez zuen alde egingo,
baina horrela ez zen
gehiago txoria izango,
eta guk txoria genuen maite.*



2015eko apirilaren 27an hil zen, 58 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Autobus ordutegiak berritu egin behar dira: "Autobusen ordutegi berriak jarri dituzte martxan, eta autobus geltokietan eguneratu dute informazioa, baina herriko beste informazio gune batzuetan ordutegi zaharrak daude oraindik, eta horrek nahasmena sortzen du. Lorituaneke aldapako informazio puntuan eta udaletxe azpian neguko ordutegiak ageri dira oraindik, beraz, lehenbailehen aldatzea eskertuko genuke. Horrez gain, orain dela pare bat aste argitaratu zuen BARRENEK King-Kong autobus geltokiko informazio kutxako kristala hondatuta zegoela, eta berritu beharrean, informazio papera gainean itsatsi dute. Ez dut uste hori denik irtenbiderik onena".



San Pedro auzoko parkearen atzean sasiak daude: "San Pedro auzoko parkea mugatzen duen harrizko hormaren gaineraino iristen dira erreka sasiak, eta sasietatik gora arratoiak igotzen dira. Parkean ume asko ibiltzen dira, eta eskertuko genuke ingurune hori apur bat txukuntzea, azken batean, arratoiak zikin-keria handia sortzen dutelako".



San Rokerako zubiko berrikuntza lanak pareko etxeen intimitatea hobetzeko aprobetxatu behar zituzten: "San Rokerako zubiko baranda berritu dute, eta iruditzen zait aukera ona galdu dugula Bernardo Ezenarro kaleko hainbat etxetako pribatutasuna hobetzeko. Zubi horretatik gure etxeetako barruko aldea ikusten da, eta ondo egongo litzateke baranda berriari pantaila edo xafra batzuk jartzea, pareko etxeen intimitatea gordetzeko".

BARREN astekaria buzoian sartu behar da: "BARRENEK azken alea portaleko kanpoko aldean utzi ziguten, lurrean botata, eta azken aurrekoa, berriz, portalean baina lurrean. Ez da era horretan uzten dituzten lehen aldian. Mesedez, errespetu gehiago. Ez da batere kostatzen lana ondo egitea".



Mendaroko Ikastolako patio parean zulo handia dago: "Mendaroko Ikastola parean asfaltoa hondatuta dago, eta eskertuko genuke konpontzea".



Gazteentzako enpresa industrialen bigarren ideia lehiaketa aurkeztu dute

TKgune Fabrikazioa, Berrikuntza eta Teknologia Transferentziarako Sareak antolatzen du lehiaketa

TKGUNE ideia lehiaketa abiatu dute, gazteentzako enpresa industrialen lehiaketa. TKgunek, fabrikazioa, berrikuntza eta teknologia transferentziarako sarea osatzen duten Lanbide Heziketako ikastetxeek antolatzen dute lehiaketa hau, Elgoibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, eta Danobat Group Koop. E., Alcorta Forging Group S.A., Grupo Schaeffler, Grupo Unceta eta Rural Kutxaren babesarekin.

Bigarren aldia da antolatzen dutela eta, iaz bezala, bi sari izango dira aurtetik, enpresa industrialeko ideia onenari dagokiona, eta bestetik, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko Lanbide Heziketako ikasle edo ikasle ohiek aurkeztutako enpresa industrial ideia onenari dagokiona. Enpresa Industrial Onenaren saria eskuratzen duenak 2.500 euro jasoko ditu dirutan, baina horrez gain 40 prestakuntza ordu, 100 aholkularitza ordu eta proiektu



tua gauzatzeko beharrezko diren baliabide industrialak erabiltzeko 300 ordu ere izango ditu. Hemen bertako Lanbide Heziketako ikasle edo ikasle ohiek aurkeztutako ideia onena, berriz, 2.000 euroekin, 40 prestakuntza ordurekin, 50 aholkulari-

tza ordurekin eta baliabideak erabiltzeko 100 ordurekin sarituko dute. Antolatzaileek aurreratu dute sariak ezin izango direla metatu eta ideia sarituen proiektuak abiatu eta 18 hilabeteren epean egin behar dira-eta.

Jon Lapeira IMHko ikaslea eta Eneko Alkorta Mekako ikaslea Lanbide Heziketako Skills olinpiadetan lehiatuko dira Madrilen



Arg.: Aitor Zabala

Maiatzaren 5etik 9ra bitartean jokatuko dira Lanbide Heziketako Skills olinpiadak, Madrilen. Hilaren 5ean izango da inaugurazioa, 6-7 eta 8 egunetan lehiaketa eta 9an sari banaketa egingo dute. Lanbide Heziketako selezioa lehiatuko da han, eta Elgoibarko Lanbide Heziketako bi ikastetxeetako ikasle bana ere izango dira tartean: Jon Lapeira IMHkoa eta Eneko Alkorta Mekakoa. Guztira, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 14 ikasle arituko dira. Fabrikazio mekanikoko produkzioaren mekanizazioa ikasten dihardu Jon Lapeirak eta CNC fresatzeko makina eta CNC tornuko Skillsetan arituko da, Igor Larrañaga tutore duela. Soldadura ikasten dihardu, berriz, Eneko Alkortak eta Iñigo Argoitia izango du tutore Madrilen.

Elgoibarren izan da Elke Loeffler Governance Internationaleko zuzendaria, parte-hartzean aditua

Elgoibarko EAJk gonbidatuta etorri da

Elgoibarko EAJk gonbidatuta Elke Loeffler Governance Internationaleko zuzendaria nagusia izan da bisitan aste honetan Elgoibarren. Zerbitzu publikoen eskaintza hobetzen aditua eta aritua da Elke Loeffler alemaniarra. Herritarren parte-hartze prozesuak sustatzen eta funtzionarioak trebatzen eman ditu azken hamabost urteak, eta Udalak azken urteetan martxan jarri dituen herritarren parte-hartze prozesuetan lanean jardun duten udal teknikari eta arduradunen zalantzak argitzeko ekarri dute Elgoibarrera. “Dakiena irakastera etorri da, asko baita ikasteko daukaguna, eta alor honetan orain arte egin dugun lana hobetu nahi dugu. Asmo horretan, luxu bat da bera moduko aditu baten aholkuak jasotzea”, azaldu zuen joan zen barixakuan Alfredo Etxeberria alkateak.



Biharko Eibarren antolatu duten manifestaziora eta ekitaldi politikora deitu du LABek

Maiatzak 1 da bihar, Langileen Nazioarteko Eguna, eta urtero legez, manifestazioa antolatu du LABek, langileen eskubideen alde. 12:00etan izango da manifestazioa, Eibarren, Untzagan hasita, eta ondorenerako ekitaldi politikoa eta herri bazkaria antolatu dituzte. “Lantokian zein kalean, eskuak lotuta eta mutu, eskubiderik gabeko herritar nahi gaituzte”, ohartarazi du LABek, eta borroka sindiakala “inoiz baino beharrezkoagoa” dela nabarmendu du.



Hauteskunde egunean mahaian izango diren zerrendak argitaratu dituzte Udalek

Maiatzaren 24an egingo diren Udal hauteskundeetarako eta Batzar Nagusietarako hauteskunde mahaian osatzeko zozketak egin dituzte Mendaroko eta Elgoibarko udaletxeetan eta osatu dituzte behin-behineko zerrendak. Lagun horiek alegazioak aurkezteko aukera dute orain. Zozketaren emaitzak ikusteko: www.barren.eus.

Gipuzkoan zertan inbertitu behar den proposatzeko batzarrak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 20 milioi euro bideratuko ditu lurraldeko eskualdeetan herritarrek gauzatu nahi dituzten proiektuetara. Eskualde bakoitzeko biztanleek dirua zertan eta nola inbertitu nahi duten esateko aukera izango dute, eta eskualde bakoitzak, tartean Debabarrenak, bi milioi euro izango ditu datozen lau urteetan inbertitzeko. Elgoibarren martitzenean egin zuten herritarren ekarpenak jasotzeko tailerra, eta Mendaron, maiatzaren 7an egingo dute, udaletxean, 19:00etatik 21:00etara. Beste bi modu ere badaude, hala ere, ekarpenak egiteko: Martxoan *Gipuzkoa Berria* aldizkariarekin batera etxetara bidalitako eskuorria beteta (eskuorriak herriko bilketa puntuetan –udal egoitzetan ere eskura daitezke) edo Internetez, www.aurrekontuahobetzen.eus webgunearen bidez.

Ikastolako frontoiaren alokairua merkatu dute, erabilera sustatzeko

Ikastolako frontoiaren alokairua merkatu du Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak, frontoiaren erabilera sustatzeko asmoz. Orain arte, ordua 18,50 euroan alokatzen zuten frontoia, baina maiatzetik aurrera 10 euroan alokatuko dute. Prezio horretan argiaren eta dutxen erabilera ere sartuta dago. Frontoia alokatzeko interesa dutenek Olaizaga kiroldegira jo behar dute. Astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 22:00etara alokatu daitezke ikastolako frontoia, eta larunbatetan eta igandetan, 9:00etatik 13:00etara.

Lagunak pilota eskola kolokan



Duela hainbat hilabete iragarri zuten Lagunak pilota eskolako arduradunek aurtengo ikasturtean utziko dutela pilota eskola eta hasiak zirela errelebo bila. Umeei pilotan irakatsiko dieten gazteak sartu nahi dituzte pilota eskolan, baina momentuz ez dute euren ordezkorik aurkitu. Erreleborik ezean, pilota eskola bertan behera geratuko da ekainetik aurrera. Jesus Mari Agirrebeña lehendakariak eta Jose Mari Leiaristi eskolako ordezkariak eman dute pilota eskolaren egoeraren berri.

Ainhoa Andonegi

Lagunak pilota eskola 1989. urte inguruan sortu zuten Elgoibarko hainbat pilotazalek, eta 1990. urteko San Anton pilota txapelketa izan zen Lagunak pilota eskolak antolatzen zuten estreinako pilota jaialdia. 25 urte pasatu dira ordutik, eta lan handia egin du Lagunak pilota eskolak, baina dagoeneko iritsi zaie erretiroa hartzeko ordua. Orain dela hainbat hilabete

jakinarazi zioten Udalarai aurtengo ikasturtea izango zela euren azkena, eta ordezkorik ez zirela, baina momentuz ez dute errelebo hartuko duen inor aurkitu. Kezkatuta eta penatuta daude arduradunak, 25 urtean egindako lanak segidarak izango ez duela ikusten dutelako. Une honetan 40-45 bat ume ari dira pilota eskolan, eta haiei jarraipena emateaz gain, atzetik etorri daitezkeenei

pilotan irakatsiko dien jendea behar dute eskolan.

Eskolaren sorrera

Baltasar elkartearen babesean jokatzen zuten pilotan garai hartan elgoibatarrek, eta herriz-herriz ibiltzen ziren txapelketak jokatzen. Beste hainbat herritan ordurako hasita zeuden pilota eskolak sortzen, eta pilotazale

haiei ideia ona iruditu zitzairen Elgoibarren ere eskola bat sortzea, umeen artean pilotarako zaletasuna sustatzeko bereziki. Jesus Mari Agirrebeña, Jose Mari Leiaristi, Pedro Agirregomezkorta, Alberto Aldazabal eta Ignacio Gabilondo izan ziren eskolaren sortzaileak. “Bost behar ziren estatutuak eratzeko, eta horiek izan ginen paperetan sinatu genuenak, baina laguntzaile asko izan genituen”, esan du Jesus Mari Agirrebeñak. Geroza iritsi ziren taldera Juan Mari Elustondo, Antonio Azpiazu, Sabino Lizarralde, Unai Leiaristi, Esteban Gerrikabeitia, Mertxe Ariznabarreta, Maite Ezkiaga eta Arantxa Arrillaga, eta horiek gaur egun ere jarraitzen dute oraindik. Elgoibarko Udalak ere laguntza eskaini zien eskola sortzeko, eta hasierako urteetan “babes handia” izan zutela adierazi dute: “Elkoroiribe, Urrusolo eta Eguren asko inplikatu ziren”, esan du Agirrebeñak. Burokrazia kontuetan lagundu zieten, eta kiroldegian bulegoa eman zieten. “Orduan kiroldegian zegoen frontoia, eta primeran etorri zitzaigun lokal hura”, esan du Leiaristik. Hasierako urteak oparoak izan ziren, eta Udalarekin hartu-emanak ere onak ziren, baina harreman horrek ez zuen luzaroan iraun. Urte batzuren ostean Ikastolara lekualdatu zituzten: “Ez daukagu ezer eskubaloiairen kontra, baina kiroldegia haiek hartu zutenean, gu handik atera egin gintuzten”, esan dute. Kiroldegiko frontoia forma okertuta zegoela esan dute, eta hura konpondu beharrean, eskubaloirako kantxa egitea erabaki zuen Udalak, eta Lagunak pilota eskolako en egitekoa Ikastolako frontoira bideratu zuten. “Elgoibarko Udalak ez du sekula erakutsi frontoi berria egiteko borondateirik”. Ikastolako frontoiak ez ditu arauak eskatzen dituen neurriak betetzen. Txikiagoa da bai luzeran, bai zabaleran eta baita altueran ere. “Metroak falta zaizkio, eta horren ondorioz, ezin dugu txapelketako partida ofizialik antolatu. San Bartolome jaietan pilotari profesionalak etortzen dira, baina ez dira txapelketa ofizialak izaten”. Frontoi berri bateko egoera asko erraztuko lukeela usate dute.

Elgoibar pilotazalea

Elgoibarrek pilotarako daukan zaletasuna aspaldikoa da. Agirrebeña eta Leiaristi Sallobente bailaran jaiotakoak dira biak, eta euren ume sasoiaren denak pilotan jar-

duten zutela gogoratu dute: “Ez zegoen besterik. Baloia jende gutxik zeukan eta bizikleta are eta gutxiagok. Pilotan egiten genuen denok. Guk San Lorentzoko frontoian ez genuen besterik ikusten, eta ikusten genuena ikasi genuen”. Elgoibarrek gainera pilotari “handiak” izan ditu, eta horietako hainbat izen bota dituzte: “San Lorentzo bailaran pilotari onak genituen: Txurruka-Alonso bikotea oso ona izan zen, Artazo... Elgoibarrek izen handi asko eman dizkio pilotari, eta Etxabe X., finalak jokatzen ere iritsi zen”, esan dute harro.

Lagunak pilota eskolak ere jokalarionak izan ditu, baina horietako batzuk futbolagatik laga zuten pilota. Markel Bergarak edota Zuhaitz Gurrutxagak pilotarako doaiak zituztela nabarmendu dute, baina biek ere futbolerako bidea hartu zutela gero. Herriarteko pilota txapelketan ere urte onak izan dituzte Lagunak eskolako pilotariek, eta bat baino gehiago egon izan da profesioletara iristear, bai-

Umeei pilotan irakasteko jendea behar dute pilota eskolan

na 18 urtetik aurrera pilotan jarraitzea zaila dela azaldu du Leiaristik: “18 urtetik aurrera denek batera jokatzen dute kategoria berean, eta alde oso handia egoten da. Horrez aparte, futbolariek eta eskubaloilariek aukera gehiago eskaintzen dituzte, talde bakoitzean jende gehiagok jokatzen duelako”. San Anton pilota txapelketa berea ere pilotari handi askoren abiapuntua izan da. Elgoibartik pasatu dira, besteak beste, Olaizola anaiak, Irujo, Mikel eta Fernando Goñi, Titin, Eugi... “San Anton pilota txapelketa antolatu genuen lehengo aldiaren etorri zen Eugi, eta handik gutxira egin zuen debuta profesioletan”, esan du Agirrebeñak. Lagunak pilotari eskolak antolatutako jaialdi horrek izan du bere oihartzuna pilota munduan, baina gaur egun dena behera etorrita dago: “San Anton jaiak urtarilean dira, eta giroak ez du asko laguntzen Ikastolako hozkailu horretara joateko. Hotz handia egiten du Ikastolan, eta gero eta ikusle gutxiago joaten da”, esan dute.

Etorkizuna beltz ikusten dute pilota eskolako arduradunek. Gazteak animatu nahi dituzte, pilota gustuko duten gazteak, euren pilota eskolatik pasatu diren gazteak, umeei pilotan irakasteko ilusioa duten gazteak. Argi esan dute: erreleborik ezean, Lagunak pilota eskola desagertu egingo da. Agirrebeña eta Leiaristik argi dute “konstantzia” behar dela pilota eskolari tira egiteko, eta momentuz behintzat ez dute ardura hori hartuko duen inor aurkitu.





Frontoi berria eraikitzeko hamaika arrazoi

Elgoibarren pilotarako zaletasuna badagoela uste dute Lagunak pilota eskolako kideek, baina pilotan jokatzeko baldintzak betetzen dituen frontoi baten beharra aldarrikatu dute ia-ia eskolaren sorreratik. “Gipuzkoako herri guztiek daukate gurea baino frontoi hobea. Mendaro eta Soraluzek ere Elgoibar baino biztanle askoz gutxiago izanda, arauzko frontoia dute”. Sarritan bildu dira Udalarekin, eta herriak duen behar honen berri eman izan diote. Txosten bat ere prestatu zuten frontoi baten beharrak zein diren azalduz, eta herrian frontoia eraikitzeko ikusten zituzten kokapen egokiak ere aurkeztu zizkieten Udalari. Zortzi bat leku egoki ikusi zituzten, eta proiektuak ere aurkeztu zizkieten Udalari: besteak beste, Gabriel Krutzelaegiko etxeak egin dituzten gunea, IMH ingurua, Mintxeta aldea, Ikastolako goiko kantxa berritua, gaur egungo gaztetxea dagoen zonaldea... baina Udalak atek itxi zizkien, finantzaziorik ez zegoela esanez. “Ez genuen eskatzen urte batetik bestera egitea, baina esan genien urtero-urtero diru partidak bat aurrezteko frontoia egiteko, eta nahikoa aurrezten denean egiteko, baina ez zegoen horretarako borondaterik”. Hauek dira txosten hartan jaso zituzten arrazoi nagusiak.

“Elgoibarren dauden frontoiek ez dituzte arauzko frontoi batek beharko lituzkeen baldintzak betetzen. Gauzak horrela, ezin ditugu nahiko genituzkeen adina txapelketa ofizial antolatu. Horren ildotik, San Anton Torneoa edo San Bartolome jaietako profesionalen arteko partida interesgarriak zuzenean botatzeko telebistekin harremanetan jartzen garen bakoitzean ere erantzun bera jasotzen dugu; Ikastolako frontoia ez dituela gutxieneko baldintzak betetzen.

- Elgoibar industria indartsua duen herria izanik, zertan gaude gu arauzko pilotaleku baten jabe egin gabe, inguruotako edozein herrik bere frontoia eta kiroldegia behar diren baldintzetan dituenean? Elgoibar baino dezente biztanle gutxiagoko herrietan ere ari dira arauzko frontoia egiten. Elgoibarek askoz gehiago merezi duelakotan gaude, gure pilotariak, beste kirol batzuetan diharduten moduan, pilota-jokoa lantzeko leku aproposa eta egokia eduki dezaten. Horrela egiten ez bada, alferrik izango da gazteei kirol maila hobetzeko eskatzea.

- Pilotari batzuk beste herri batzuetara joatera behartuta daude, behar bezala entrenatu ahal izateko. Gure Pilotariak Mendaro eta inguruko herrietara joaten dira arauzko baldintzak dituzten frontoietan entrenatu ahal izateko.

- Esku pilotak izango luke lehenetsua frontoi berrian baina beste hainbat aktibitate batzuetarako ere balioko luke. Profesional eta afizionatu mailako txapelketak antolatu, bertsolarien saioak, dantza saioak, kontzertuak, modelo desfileak, trikitilariak, e.a.

- Pilotari handien jaioterria izan da Elgoibar: Artazo, Irureta, Zabala, Kortabitarte, Etxabe X, arriolatarrak eta abar luze bat. Gehiago etorriko badira ezinbestekoak dira instalazio egokiak.

- Begi bistakoa da pilotak Euskadin eta inguruetan daukan garrantzia eta pizten duen interesa. Telebistei eta prentsari begiratu bat ematea besterik ez dago. Euskal erakunde publikoek ere pilotaren inguruko liburuak editatzen dihardute, horren gurea den kirola mundu guztira zabaltzeko helburuarekin”.

Martxoan...

JAIOTAKOAK



Jon Elustondo Ramal
Martxoak 13
Itziar eta Victor



Alex Ramos Bueso
Martxoak 16
Angel eta Iratxe



Anike Etxabe Abayomi
Martxoak 14
Abdulsemih eta Oihana

Muhammad Hamza Sarwar
Martxoak 30
Rizwan eta Mymoon

Irati Alberdi Criado
Martxoak 5
Jorge eta Beatriz

Muhammad Azaan Aslam
Martxoak 9
Shahzad eta Noreen

Mara Fernandez Nieto
Martxoak 9
Victorio eta Yolanda

Maren Mugertza Araujo
Martxoak 14
Ainara eta Iñigo

Fernando Jose Bellorin Lopez
Martxoak 10
Miguel Angel eta Yasmina

HILDAKOAK

Maria Angeles Lizundia Garate • 87 urte • Martxoak 6
Jose Antonio Moreno Ondartza • 87 urte • Martxoak 6
Jose Lorenzo Villar Fidalgo • 67 urte • Martxoak 9
Manuel Rodriguez de Las Heras • 80 urte • Martxoak 9
Maria Juaristi San Martin • 80 urte • Martxoak 9
Pura Castaño Rodriguez • 80 urte • Martxoak 12
Patxi Ajubita Ayesta • 61 urte • Martxoak 16
Jose Zuazubizkar Goenaga • 92 urte • Martxoak 17
Jose Maria Mendikute Zangitu • 85 urte • Martxoak 19
Lourdes Zubiaurre Pujana • 64 urte • Martxoak 19
Paula Arrate Arriaga • 87 urte • Martxoak 20
Rafael Carrara Gonzalez • 86 urte • Martxoak 25
Maria Luisa San Martin Aranberri • 69 urte • Martxoak 29

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295




*Atzoko notizi txarra
entzun genuen orduko,
bagenekin zure hutsuna
ez zela erraz gaindituko.
Guk tira dugun lekutan
izan zaitugu lekuko,
jarraitzaile hoberikan
ez genuke aurkituko.
Nahiz zure animorikan
ez dugun berriz adituko,
zuk emandako indarra
ez da sekula agortuko.
Giza probako taldeak
ez zaitu inoiz ahaztuko.*

"Tope Natxiok" Mendaroko gizapropa taldeak

JOSE MANUEL ANSORREGI EGAÑA

"Ibiri"

Mendaron hil zen,
2015eko apirilak 27an, 58 urterekin.





Josten, erabakia ehuntzen

Gure Esku Dago mugimenduak antolatuta erabakitzeko eskubidearen aldeko Joste Eguna ospatu zuten zapatuan Euskal Herriko herri askotan, tartean Elgoibarren eta Mendaron ere bai. Herriko elkarte, eragile eta norbanakoen laguntzaz, egun osoko egitarauak antolatu zituzten bi herrietan eta, eguraldia lagun, jende asko batu zen ospakizunera. Askorako eman zuen zapatuak, baina zerbait izan bazen, oihalak josteko eguna izan zen apirilaren 25a, herritarren desio, ilusio eta borondatez apaindutako oihalak elkarri josteko eguna. Oihal horiek guztiak eta hemendik aurrera batuko diren gainerakoak ekainaren 21ean Bilbon, Donostian, Gasteizen, Iruñean eta Baionan egin asmo dituzten hautetsontzi erraldoiak egiteko erabiliko dituzte.

Elgoibar



Mendaro



Mendaro



Elgoibar



Elgoibar



Mendaro



Mendaro






Egoibar



Egoibar



Mendaro



Egoibar



Egoibar



Mendaro





Ana Alberdi

BLOGARIA ETA MODAN ARITUA

21 urte ditu Ana Alberdik eta Ikusentzunezkoak ikasten dihardu Arrasaten, Mondragon Unibertsitatean. Goizetan, eskolako telebistarako lan egiten du, bekadun, eta astean birritan dantza garaikideko eskolak ematen ditu Mendaron, iluntzetan. Modari buruzko SingleCloset (<http://singlecloset.com>) blogak eman du, baina, ezagutzera. Blogak oihartzun handia hartu du azkenaldian eta bide berriak urratzeko aukera eskaini dio.

Ainara Argoitia

Noiz ekin zenion moda kontuak idazteari?

2014ko otsailean zabaldu nuen bloga. Ikusentzunezko komunikazioa ikasten dihardut Arrasaten, Mondragon Unibertsitatean, eta aurreko ikasturtean agindu ziguten lanetako bat izan zen bloga sortzea. Bi atal izan behar zituen blog hark: batetik, irakasleak eskatutako lanentzako atala, eta bestetik, atal librea. Atal librea egiteko mila buelta eman nizkion buruari, ez bainekien zeri buruzkoa egin, baina azkenean, modari buruzkoa egitea erabaki nuen, ingurukoek berotuta. Moda blogak izugarri gustatzen zaizkit eta gazte-gaztetatik jarraitzen ditut, 14 bat urte nituenetik-edo. Orduak eta orduak eman ditzaket moda kontuak irakurtzen edo Fashion Weekend desfileak ikusten. Ikasketa proiektu bezala hasi nuen berez bloga, baina ekainean, ikasturtea amaitu zenean, proiektu pertsonala izatera pasatu zen. Bloga nire espazio librea da. Bizitza honetan norbaiten agindutara ari gara gehienera: eskolan irakasleak agintzen du; lanean, nagusiak; etxean, gurasoek, baina blogean neuk agintzen dut. Egia da ez daukadala nik nahi beste asti bloga berritzeko, goizetan lanean ari naizelako eta arratsaldetan eskolara joaten naizelako, baina saiatzen naiz.

Denbora gutxian oihartzun handia hartu du zure blogak. Jarraitzaile asko dituzu, eta horrek ere behartuko zaitu batzuetan, ala?

Ikasi dut presio horri ihes egiten, baina. Hasieran asko estutzen nuen neure burua. Idatzi beharra neukala sentitzen nuen, baina ez nintzen denera iristen eta gaizki ere pasatu nuen horregatik. Gaur, baina, beste modu batean bizi dut dena.

Zeuk bakarrik kudeatzen duzu bloga?

Ez. Etxeko guztiak eta mutil laguna ere martiritatuta ditut dagoeneko. Normalean aital egiten dizkit argazkiak.

Zure blogaren oihartzuna saltoki handietara ere iritsi da. Duela asko ez dela modaren inguruko hitzaldia ere eman zenuen Eibarko Corte Ingles saltokian. Nola izan zen hori? Zer moduzko esperientzia izan zen?

Hasi nintzenez neure arropi buruz idazten nuen. Ingurukoek jarraitzen ninduten, baina urrutira gabe. Denborarekin, baina, ikasi ere egiten duzu, eta hasten zara gauzak hobetzen, testuak eta irudiak gehia-



“Estilo sinplea gustatzen zait; basikoen zalea naiz”

go zaintzen, eta lortzen duzu dendari batzuen interesa piztea. Halaxe, ia oharkabea, hasi nintzen denda batzuekin kolaboratzen ere, eta horren ondotik etorri zen Corte Ingleseko aukera hori. Izugarri esperientzia aberasgarria izan zen niretzat. Martxoaren 27an izan zen. Gure eskualdean ez dago nirea bezalako blog askorik eta nik uste dut horregatik deitu nindutela. Lehenengo aldia zen jendearean modaz hitz egiten nuela eta oso polita izan zen. Bloga zabaldu nuenean sekula ez nuen pentsatuko halako aukera bat suertatuko zitzaidanik.

‘Ana Alberdik bere armairu barrua erakutsiko digu’. Halaxe iragarri zuten Corte Inglesen. Zer mezu zabaldu zenuen?

Bi jardunaldi izan ziren. Martxoaren 13an bi neska egon ziren eta 27an,



beste bi: *Breakfast at Paula's* blogaren kudeatzailea, Paula, eta ni neu. Paulak bloga zabaldu eta mantentzeak zer lan suposatzen duen azaldu zuen, eta niri nire arroparen inguruan hitz egiteko eskatu zidaten. Nire estiloa oso simplea da, eta saiatu nintzen esaten gure armairuetan dauzkagun arrokekin konbinazio asko egin ditzakegula; ez dagoela zertan arropa asko izan; ez daukagula jantzigela handirik izan beharrik, neuk ere ez daukadalako. Nik uste baino jende gehiago etorri zen entzutera eta izugarria izan zen niretzat. Nik badakit blogean zenbat jende sartzen den, baina nortzuk diren ez, eta jarraitzaile horietako batzuei aurpegia jartzea oso polita izan zen.

Zer da zure armairuan sekula falta ez dena?

Praka bakero batzuk, larruzko jaka bat eta kamiseta basikoak. Beltza eta zurikoa naiz, baina kamiseta basikoak ahal den kolore guztietakoa izango nituzke. Zapatekin eta bitxiekin jolasten dut nik asko. Erlojuak eta lepoko txikiak itzel gustatzen zaizkit.

Estilo simplea gustatzen zaizula diozu eta orduak eta orduak eman ditzakezula desfileak ikusten. Zaila ematen du uzartzeko.

Bai, baina oso selektiba naiz. Gustatzen zaizkidan diseinatzaileen desfileak ikusten ditut bakarrik. Gehiegikeria zaleak ez zaizkit gustatzen. Isabel Marant, adibidez, asko gustatzen zait. Badakit bere arropak ezingo ditudala erosi, baina bere diseinu hori, linea zuzen eta simple horiek inspirazio iturri zaizkit.

Moda kontutan zeintzuk jarraitzen dituzu?

Colage Vintage [www.collagevintage.com] eta AEBetako *Sincerelyyours* izeneko blogak dira gehien jarraitzen ditudanak, ziu-rrenik oso nire estilokoak direlako. Orain, hala ere, Instagram bidez jende askoren perfilak jarraitzen ditut.

Bide bat urratu duzu. Irudia asko zaintzen duzu eta horrek badu ikasten ari zarenekin loturarik. Nora iritsi nahiko zenuke?

Ez dakit. Dakidan bakarra da nire helburua ez dela blogetik bizitzea.

Bizi al daiteke?

Bai, bai. Aipatu dizkizudan neskak, adibidez, bizi dira. Hain dituzte jarraitzaile asko azkenean tendentzia sortzaile ere badirela. Niri kazetari-tza gustatzen zait, baina, eta kazetaria izan nahiko nuke. Blogarena gehiago ikusten dut hobby gisa, baina noizbait ateran bat zabaltzen badit, ba primeran! Bloga ere bada komunikatzeko bidea eta ikasteko ere balio du.

Dendek lagatako arropa da zuk erakusten duzuna?

Batzuk bai. Blogari ezagunek dirua eskatzen dute euren blogean arropa erakusteagatik, baina nik sekula ez dut dirurik eskatu. Batetik, nire helburua ez delako hortik bizitzea, baina bestetik kontzientzia naizelako nire bloga ez dela horrenbestereinokoa. Hala ere, jakin badakit Instagramen bakarrik 1.400dik gora lagunek jarraitzen nautela eta orduan dendariei eskatzen dieran bakarra da erakutsiko dudana hori ematea edo oparitzea, niri esker irabazi bat ateratzen dutelako eurek. Normalean dendariak eurak jartzen dira nirekin harremanetan.

Bitxia egin zitzaidan zu horren gaztea izanda zure jarraitzaileen artean horrenbeste heldu ikustea Eibarko hitzaldian.

Neu ere harritu nintzen, jakin badakidalako nire jarraitzaile gehienak 16-25 urte artekoak direla.

Biderik zabaldu al dizu horrek?

Ez dakit, baina egia da azken hilabeteetan nazioarteko firma batzuekin

ere egin dudala lan. Horrek asko betetzen nau, hemendik kanpo ere ezagutzen nauten seinale delako.

Bestela non beste ibili zara?

*Puntu*a aldizkarian kolaboratu izan dut, eta zuenean ere laster hasiko naiz kolaboratzaile lanetan. Gertuko denda txikiekin egiten ditudan kolaborazioak ditut gustukoen, ez dakit, agian gertukoak direlako, txikiagoak... baina xarma berezia dutela iruditzen zait. Adibidez, duela egun batzuk MG Bags-eko neskek beraien poltsetako bat bidali zidaten, eta nire poltseta marka gustukoenak nirekin kolaboratu nahi izatea oso polita izan da.

Modaren abangoardia hiri handiekin lotuta dago. Arropa denda bakarra dagoen herrian bizi zara zu, hala ere.

Hori ez da muga, baina. Egia da bloga zabaldu nuen egunean gutxienez hiru ordu egon nintzela atzaparra botoi gainean jarrita, idatzitakoa igotzera ausartzen ez nintzelako. Herri txiki batean bizi naiz, eta jendeak nitaz zer pentsatuko ote zuten horrek beldurtzen ninduen. Gero eta jende gehiago dago modaz eta jantzeko eraz arduratzen dena, hala ere, bai herri txikietan zein hiri handietan. Esan daiteke, moda modan dagoela. Kanpoko jendeak sarri

galdetzen zidan soinean neramana non erositakoa zen eta Zaran erositakoa zela esatean harrিতa gelditzen ziren batzuk.

Zara danean dago. Euskaldunok jantzeko gustu handia dugula esaten duten hori egia izango da behar bada?

Bada. Nik baietz esango nuke. Hemen jendea oso ondo jantzen da, nor bere estiloan, baina gustu handiarekin eta ondo.

Hitz egigizu zure beste afizioez. Dantza modernoa ematen diharduzu Mendaron.

Orain bost urte hasi nintzen eskolak ematen, 16 urterekin. Ainhoak [Garrok] eman zidan aukera hori eta oso eskertuta nago. Nik Eibarko talde batean dihardut dantza garaikidea ikasten, Ipuruako taldean, eta Ainhoak bazekienez, neuri proposatu zidan taldea hartzea berak laga beharra izan zuenean. 13 umerekin hasi nintzen, baina gaur 60 dira, eta orain Lucia Dieguezek laguntzen dit. Egia esan dantza izan da pertsona bezala gehien aberastu naue-na. Eskolan ikasitakoa jendearekin erakustera irteten garenean... hori ezin da diruarekin ordaindu! Sekulako satisfazioa da.

Begiratu batean oso neska lotsatia ematen duzu, baina gero oso jendearekin zereginetan ari zara.

Simplea eta naturala naiz, eta hiztuna, baina egia da argazkiak ateratze horrek-eta erreparatu pixkat ematen didatela eta beti joaten naizela jenderik ez dagoen lekuetara. Beldurra ere banion horri, jende aurrean horren ageriko azaltze horri, baina aldi berean, banekien beldurrak gainditzeko daudela.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Blog bat izan daitekeen bezalako proiektu berriak hastera animatzen ditut denak. Uste dut, gaur egungo egoera ikusita, norberak bere bidea hasteko aukera polita dela bloga bezalako txoko pertsonal bat izatea. Ekintzailea izatea eta erronka berrietan murgiltzea beti izango da positiboa pertsona ororentzat.

“Beldurra ere banion jende aurrean horren ageriko agertzeari”

Gaur zortzi estreinatuko dute ‘Itsasoari begira’ dokumentala Herriko Antzokian, 20:30etik aurrera

Gaixotasun neurologikoak dituzten pertsonen bizimodua jaso dute proiektuan



Maier Gurrutxaga eta bere alaba Itxaso, dokumentaleko eszena batean.

Datorren egunean, maiatzaren 7an estreinatuko dute gaixotasun neurologikoa dutenen bizimodua azalatu nahi duen *Itsasoari begira* dokumentala Elgoibarren. Herriko Antzokian izango da estreinaldia, 20:30etik aurrera. Sarrera doan izango da. Nahi duenak Herritarren Arreta Bulegoan eskuratu ditzake sarrerak aurrez, eta soberan geratzen direnak egunean bertan eskuratu ahal izango dira Herriko Antzokiko lehiatilan.

Luze jo du Zesatenjuenaz ekoiztetxeak gauzatu duen egitasmoak. Lorea Perez de Albeniz elgoibartarra da Zesatenjuenaz ekoiztetxeko kideetako bat. Proiektu honetan sinistuta daude, eta uste dute enpatia bidez edonor egin daitekeela solidario. 2012an hasi ziren lanean *Emadazu eskua* proiektuan, eta azkenean, *Itsasoari begira* izenez ikusiko du argia datorren astean. Zailtasun eta oztopo ugari gainditu behar izan dituzte bide horretan, besteak beste, finantzazio arazoari egin behar izan diote aurre. 2012ko udazkenean diru-bilketa kanpaina egin zuten antolatzaileek, eta horri esker egin du aurrera proiektuak. Arduradunek jakinarazi zuten, elgoibartar askok lagundu zuten, eta azken etapan, Elgoibarko Udalak emandako diru-laguntza ere oso garrantzitsua izan dela nabarmendu

dute. Hori dela eta, estreinaldi-ekitaldian Udaleko ordezkariak ere izango dira dokumentalaren ekoizleekin batera, egitasmoa herritarren aurreran aurkezteko.

Itxaso, protagonista

Maier Gurrutxaga elgoibartarraren alaba Itxaso da *Itsasoari begira* dokumentaleko protagonista. Itxasok 13 urte ditu eta lau hilabete zituela atzeman zioten medikuek gaixotasun neurologikoa. Itxasoren bizimodua jaso dute dokumentalean, eta gaixotasun neurologikoak dituzten pertsonen egunerokoa azaleratzea da ekoizleen helburua. Itxasorekin batera, bere senide eta lagunek ere hartu dute parte, eta gaiari buruzko iritzi desberdinak batu dituzte. Batzuetan iritzi kontrajarriak entzungo ditugu, eta bestetan, berriz, osagarriak. Azken batean Itxasoren bizitzaren errealitatea ikuspuntu desberdinetatik jaso dute. Protagonisten erreakzioen eta sentimenduen berri eman nahi diete ikusleei, eta “desberdinak” diren haur horien mundua ezagutarazi eta ulertarazi nahi die zuzendariak hartzaileei. Itxasne, animazioko pertsonaiak, poz eta umore puntu batekin islatuko du mundu hori, eta unibertso zabal hori ulertarazten lagunduko du.

Danele Sarriugartek irabazi du Zilarrezko Euskadi Saria

‘Erraiak’ liburuagatik eskuratu du saria

Zilarrezko Euskadi Saria irabazi du Danele Sarriugartek *Erraiak* liburuari esker, eta Liburuaren Nazioarteko Egunean eman zioten saria. Elgoibartarrak argitaratu duen estreinako nobela da *Erraiak*. Gipuzkoako Liburu Saltzaileen Elkarteak ematen du Zilarrezko Euskadi Saria. Lehen, Liburuaren Nazioarteko Egunean gehien saldutako liburuak saritzen zituen elkarteak, baina azkeneko hiru urteetan saltzaileek eurek hautatzen dituzte liburu sarituak. Danele Sarriugartekin batera, Parinouch Sanieeren *El libro de mi destino* saritu dute, gaztelaniazko atalean.



Elgoibarko dantzariak fin aritu dira Lezoko auresku eta soinu zahar txapelketan

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako dantzariak Lezoko auresku eta soinu zahar txapelketan hartu zuten parte joan zen asteburuan, eta arduradunek esandakoaren arabera, fin aritu ziren. Naroa Lopez, Lorena Etxaniz eta Nerea Sasiain izan ziren gure ordezkariak, eta azken honek bosgarren egin zuen bere mailan. Maiatzaren 16an nesken txapelketako finala izango da, eta 23an, berriz, mutilena.

Maiatzaren 5ean amaituko da danborradaren kartel lehiaketan parte hartzeko epea

Atabal elkarteak Trinitate jaietako danborrada iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du, eta maiatzaren 5a izango da lanak aurkezteko azken eguna. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte. Teknika libre erabili daiteke, baina kartelean ezinbestean agertu behar du ondorengo esaldiak: “Elgoibarko danborrada 2015. Maiatzaren 30ean, gaueko 23:30ean”.

Interesatuak Kultura Sailean aurkeztu behar duzuten lanak. Sari bakarra banatuko dute antolatzaileek, eta irabazleak 300 euro jasoko ditu.

‘Bi kobazulo’ ipuina idatzi du Uxue Alberdik



Uxue Alberdik kazetari eta idazle elgoibartarrak *Bi kobazulo* ipuina idatzi berri du. Prehistoriako biki batzuen istorioa kontatzen du Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984). Abiapuntuan amona-biloba batzuk daude. Umeak esaten dio amonari bi kobazuloen ipuina kontatzeko, eta, magalean dagoenez, hori eskatzen ari den unean amonaren sudurzuloak dituen begien parean umeak. Haien ere bi kobazulo balira bezala ikusten dituen umeak.

Aurkezpenean azaldu zuen Alberdik ipuinak bi plano dituela. Batetik, abentura aipatu zuen: bestea existitzen dela ahaztuta duten bi bikik elkar topatzeko bidaia egingo dute, lurpeko pasadizo eta amildegietan barrena. Bestetik, plano sinboli-

koa nabarmendu zuen: ipuin eta ametsetan sinisterra eramaten gaituen ipuina dela adierazi zuen; salto egitera eramango gaituen ipuina.

Uxue Alberdik esan zuen ipuinetan sinisten duela eta ipuinak ez direla soilik umeen kontua. Beretzako ipuinak “oso garrantzitsuak” dira, bere ingurunea hobeto ulertzen laguntzen diotelako eta ipuinak idazten gustura sentitzen delako. Bere ustez, ipuinak oso garrantzitsuak dira, azal barruan geratzen direlako.

Bi kobazulo ipuina Andoni Bastarrika bere lagunak asmatutakoa da, eta Uxuek paperera eraman du, bere ukitu pertsonalak gehituta.

Ia 700 lagun, Jose Gurrutxagaren omenez korrika

Elgoibar Ikastolak Jose Gurrutxaga krosa antolatu zuen domekarako, eta 680 bat lagunek hartu zuten parte. Adina eta sexuaren arabera banatu zituzten txikienen lasterketak, eta nagusiek denek batera egin zuten korrika. Marea urdinak hartu zituen herriko kaleak. Jende askok egin zuten korrika, eta kaleetan ikusle asko batu ziren korrikalariei babesa emateko. Jose Gurrutxagak urteroko omenaldia jaso zuen, eta irribarrea ahoan zuela eman zien hasiera lasterketa guztiei. Argazki guztiak: www.barren.eus atarian.



Mendi lasterketako Espainiako txapelketa irabazi du Maite Maiorak

FEDMEk antolatutako txapelketa irabazi du

Espainiako mendi federazioak antolatutako txapelketa irabazi du asteburuan Maite Maiorak Malagan, Cara los Trajos traila irabazita. 32 kilometroko lasterketa teknikoaren, 2.100 metroko desnibel positiboduna eta 600 korrikalari zeuden izena emanda. Aurkari gogorak zituen Maiorak, tartean Gema Arenas, Laia Andreu, Anna Comet eta Oihana Kortazar bera, baina mendaroarrak sasoirik onenean dagoela berretsi zuen. Erorikoak izanda ere, bera helmugaratu zen azkarren, 3:26:14ko denbora eginda. 1:35eko aldea atera zion helmugan bigarrenari, Kantabriako selekzioko Azara Garcia de los Salmonesi. Hirugarren Paula Cabrerizo sailkatu zen, Madril-



Arg.: Padin

go selekzioko korrikalari gaztea. Oihana Kortazarrek, berriz, bosgarren egin zuen.

Gizonezkoetan, Pere Rullan kataluniarra gailendu zen, eta Zaid ait Malekek eta Manuel Merillasek osatu zuten podiuma.

Banakako aizkora txapelketako kanporaketa Elgoibarren jokatuko dute, zapatuan

Eusko Label banakako aizkora txapelketako urrezko mailako kanporaketa jokatuko dute zapatuan Elgoibarren. Jose Mari Olasagasti (Igeldo), Ugaitz Mugertza (Mutriku), Donato Larretxea (Bera) eta Ander Erasun (Aurtitz) aizkolariek jardungo dute lehian. 18:30ean izango da txapelketa, Sigmako probalekuan.

Tenis eta padel txapelketak antolatu ditu 40-15 elkarteak

40-15 elkarteak padel eta tenis txapelketak antolatu ditu, kirol patronatuaren laguntzaz. Padel txapelketa binakakoa izango da, eta tenis txapelketa, banakakoa. Padelean jokatzeko 20 euro ordaindu beharko ditu bikote bakoitzak, eta tenisean jokatzeko, aldiz, 15 euro ordaindu beharko ditu partaide bakoitzak. Maiatzaren 11n hasiko dira txapelketak, eta Mintxetako eta IMHko instalakuntzetan jokatu dira partidak. 14 urtetik gorako edonork hartu dezake parte. Izena emateko azken eguna maiatzaren 9a izango da. Informazio gehiago ondorengo telefonoetan: Padel txapelketa: 687 421 602 (Gorka) edo 670 665 797 (Javi) / Tenis txapelketa: 696 577 872 (Luis) edo 670 665 797 (Javi).

Eskubaloia Eguna bertan behera geratu da

Sanloek Eskubaloia Eguna antolatuta zeukan biharko, baina eguraldi iragarpenaren ondorioz, bertan behera laga dute ekitaldia. Sanlo Festa ekainean egingo dute, eta arduradunek jakinarazi dute Eskubaloia Eguna ordurako antolatze-ko ahalegina egingo dutela.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi **2** – Aloña Mendi **4** (Pref.)
Martutene **0** – Elgoibar **2** (Erreg.)
Arrasate **2** – Elgoibar **2** (Jub.)
Elgoibar **1** – Lazkao **2** (Kad. A.)
Arrasate **2** – Elgoibar **4** (Kad. B.)
Elgoibar **2** – Santo Tomas Lizeoa **1** (Lehen inf.)
Allerru **1** – Elgoibar **5** (Inf. Txiki)

PILOTA

Debarroko Txapelketa
Lagunak **18** – Eibar **22** (jub.)
Lau t'erdiko txapelketa
Lagunak **22** – Tartaloetxe **3** (1. jub.)
Lagunak **22** – Legazpi **9** (1. Jub.)

ARETO FUTBOLA

Zierbena **3** – Concepto Egile Elg. **3** (2B)

ESKUBALOAIA

Alkorta Elg. **32** – Askartza **30** (Sen. mut.)
Astigarraga Elg. **32** – Egibide **17** (Jub. neska.)
Beristain Elg. **17** – Aloña Mendi **25** (Jub. mut.)
Pulpo **19** – Tecnifuelle Elg. **15** (Kad. neska.)
Bankoa Elg. **38** – Urnietako **16** (Kad. mut.)
Leitzarain **21** – Urnietako Elg. **16** (Kad. mut.)
Ereintza **30** – Deca Elg. **33** (Kad. mut.)
Aloña Mendi **28** – San Roke Elg. **22** (Inf. neska.)
Aiala **17** – Ikus Elg. **13** (Inf. neska.)
Ereintza **19** – Txariduna Elg. **29** (Inf. mut.)
Legazpi **23** – Murgil Elg. **22** (Inf. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Barixakua, **1**
10:00 Elgoibar – Ilintxa (Ohorezko jub.)
12:00 Elgoibar – Ilintxa (Inf. Txiki.)
Zapatua, **2**
10:00 Elgoibar – Arizmendi (Kad. B.)
16:30 Elgoibar – Zarautz (Erreg.)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Barixakua, **1**
10:00 Lauko Elg. – Aiala B (Sen. neska.)
Zapatua, **2**
10:00 Txariduna Elg. – Tolosa (Inf. neska.)
11:15 Pneumax Elg. – Egia (Kad. neska.)
17:00 Beristain Elg. – Bidasoa (Jub. mut.)
Domeka, **3**
11:00 Gabaz Elg. – Eibarko Haritza (Sen. mut.)

Jokin Muñoz, seigarren Europako txapelketan

Jokin Muñoz mendaroar gazteak seigarren egin zuen domekan Alcobendasen jokatu zen duatloi motzeko Europako txapelketan, 18 eta 29 urte artekoetan. Eguraldi txarra ez zen oztopo izan, eta egindakoarekin gustura itzuli dela aitortu du.

LANA

ESKAERA

- Emakumea lan bila. Adinekoak zein umeak zaintzen ditut eta baita garbiketa lanak egin ere. ☎ **620 258 708**
- Emakumea lan bila. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. ☎ **686 077 564**
- Adinekoak zaintzen ditut, gauzez nahiz arratsalde, orduka. Portalak garbitzen ere egingo nuke lan. Gidabaimena daukat. ☎ **631 343 232**
- Emakumeak adinekoak zaindud lan egingo luke. ☎ **632 280 215**
- Neska eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **943 748 899 / 685 724 861**
- Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia daukat haur eta nerabeekin. Behar bereziak dituzten umeekin lan egiteko espezializazioa daukat. ☎ **688 639 371**
- Grua operadore, igogailudun karretilarekin edo garbiketa industrialean lan egingo nuke. Esperientzia. Gidabaimena dut. ☎ **666 836 789**
- Emakumea lan bila. Erreferentzia onak eta paperak legez. Orduka edo interna. ☎ **631 681 516**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna edo externa eta baita gauak pasatzeko ere. Esperientzia. ☎ **631 506 763**
- Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. ☎ **631 705 406**

- Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Interna ere bai. ☎ **632 454 417**
 - Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. ☎ **631 714 520**
 - Jaunartzeetako argazkiak ateratzeko prest. Merke. jefrycid91@gmail.com ☎ **666 140 762**
 - Gizona eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo tabernetan lan egiteko. ☎ **602 860 033**
 - Gizona eskaintzen da peoi, artzai, lorezain edo arraindegian lan egiteko Esperientziaduna. Zumaiaiko arraindegian arraina manipulatzeko lan egindakoa. ☎ **631 066 712**
 - Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. ☎ **602 146 153 (Fatima)**
 - Emakumea eskaintzen da adinekoak zaindu edo garbiketarako egiteko. Orduka. ☎ **628 738 472**
 - Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko. ☎ **606 354 982**
 - Gizona eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile, zerbitzari edo harakin moduan lan egiteko. Esperientzia autoetako atek konpontzen. ☎ **661 064 027**
- ESKAITZA**
- Asteburu eta jai egunetan Elgoibarren lan egiteko neska behar da. Premiazkoa. 25-35 urte artekoa, euskaraz ondo hitz egitea derrigorrezkoa. elgoibarcv@hotmail.com

ETXEBIZITZAK

- San Frantzisko kalean pisua alokagai. Egonzela-jangela sukalde amerikarrarekin, bi logela handi, komuna eta terraza handia. Dena kanpoaldera. 550€ komunitateko gastuak barne. ☎ **669 293 449**
- Babes ofizialeko etxea salgai Santa Ana kalean. Bi logela, garaje marraduna eta trastelekua. Egoera onean. ☎ **686 204 618**
- Bikotea eta umea gara. Etxea behar dugu alokairuan. Arduratsuak. ☎ **628 738 472**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Gehienez, 500 €. ☎ **606 354 982**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **606 354 982**
- Duplexa salgai Elgoibarren. Eguzkitsua eta bistekin. 150.000 euro. Negoziazarria. ☎ **660 055 692**

KINTOAK

- 1946ko kintoek Iruñeara txangoa egingo dute maiatzaren 16an. Autobusa 9:30ean Txankakuan. 60 euro Kutxa: 2095 5036 50 9114932502. Azken eguna, maiatzak 14.
- 50 urtekoen kinto bazkaria maiatzaren 23an, Sigman. 11:45 plazan elkartuko dira. 12:00etan, meza, 12:15ean argazkia botatokian, eta segidan luntxa, Zubi Ondo elkartean. 14:30 bazkaria. 69 euro sartu behar dira Bankoan: 0138 0020 11 0010695759. ☎ **650 725 977 (P!!!) / 656 743 975 (Izaskun)**
- 1950ekoen kinto bazkaria maiatzaren 23an. 12:00etan meza Santa Klaran, gero

- argazkia. 13:00 luntxa Gure Biden, 14:00etan autobusa Maalan. Bazkaria 14:30 Loiola hotelean. 80 euro sartu: 2095 5036 50 9114870189. ☎ **670 271 370 (Koldo) / 616 556 890 (Anton)**
- 1943koen kinto bazkaria, maiatzaren 16an, Sigman. 50 euro sartu, Laboral Kutxa: 3035 0007 25 0071130756. Azken eguna: maiatzak 13. 13:00etan Tantan luntxa. 13:45: argazkia. 14:00: meza Parrokian. 14:30: bazkaria.
- 1973ko kintoen bazkaria ekainaren 13an, Txarridunan. Luntxa, 13:00etan eta 19:00etan festa Gabaz tabernan. 40 euro sartu, Kutxa: 2095 5036 50 9114823858. Ekainaren 5erako.
- Elgoibarren 1960an jaiotako kinto bazkaria antolatu dugu. Ekainaren 6an izango da Txarriduna jatetxean. Parte hartu nahi duenak 60 euro sartu behar ditu, Laboral Kutxa kontu honetan: ES96 3035 0007 200071130468. Azken eguna, maiatzak 5.
- 53ko kintoen bazkaria apirilaren 25ean. 12:30ean meza Maalan, 14:30ean bazkaria Txarridunan. 40 euro. Castrillejo estankotan eman izena hilaren 22rako.

GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen da Jausoro plazan. ☎ **699 812 566**

BESTELAKOAK

- Katuak oparitzen ditut. ☎ **672 153 042**
- Katuak oparitzen ditut. ☎ **943 743 975 / 606 081 323**



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Ondasun bat pertsona baten izenean baldin badago, baina administratiboki beste norbaiten izenean agertzen bada, zeinek du balio handiagoa: katastroak ala jabetza-erregistroak?

Katastroaren eta jabetza-erregistroaren erabilerak ondo bereiztuta daude berez.

Jabetza erregistroak izaera juridikoa dauka eta ondasunaren titulartasuna (hau da ondasun hori non den) eta izendatutako ondasunen karga zehazten du. Dena den, garbi izan behar da ondasun bat jabetza erregistroan erregistratzea berez borondatezkoa dela eta ez derrigorrezkoa. Katastroak izaera faktikoa dauka. Ondasunen inguruko datu eta ezaugarriak jasotzen ditu, egon ondasun hori jabetza erregistroan jasota edo ez. Dena den, ondasun hiegizinen gaineko zerga erregistroko titularrari dagokionez, hau da Erregistroan ondasun horren titulartzat agertzen denari, katastroan ere jasoko da datu hori. Beraz, titulartasun aldaketarik balego, jakinarazi egin beharko litzateke. Europako Batasunako herrialde guztietan, Espainian izan ezik, jabetza erregistroa eta katastroa berdina izaten dira edo guztienaz modu berean deskribatzen dituzte etxaldeak. Espanian, ordea, batzuetan ez datoz bat.

AHOLKUA: Etxalde bat katastroko ziurtagiri deskribatzaile eta grafikoaren arabera erregistroan inmatriculatzen denean, bi datuak, erregistrokoa eta katastrokoa, bat datoz beti.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldearen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






• Zorionak, **Luken**, maiatzaren 6an urtebete egingo duzulako. Elgoibarko familiakoen partez.



• Zorionak, **Nadeht**, 7 urte bete dituzulako. Amama eta aitaren partez.




• Zorionak, **Nerea**, 5 urte egingo dituzulako. Familia guztiaren partez, bereziki Nora eta Ibairen partez.



• **Urko**, astelehenean 7 urte egin zenituen, eta primeran pasatu genuen! Zorionak etxeko guztien eta, batez ere, Kaieten partez!



• Zorionak, **Ekain!** Zein ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Iker eta Haritz**, urtebete eta 4 urte beteko dituzuelako astelehenean eta asteazkenean. Muxu bana, eta ondo pasa! Gurasoen eta familiako guztien partez.



• Zorionak, **Ibai**, mutil handi! Larunbatean 6 urte handi egingo dituzu! Muxu handi bat. Ondo pasa familiakoen partez.



JOSE MANUEL ANSORREGI EGAÑA

"Ibiri"

2015eko apirilaren 27an hil zen, Mendaron, 58 urte zituela.

"Hainbat urtetan Gaztainerre egunean Mendaroko ikastolan egin duzun lana bihotzez eskertzen dizugu, Ibiri. Mila esker".

Arno Guraso Elkarte



ESKERTZA

Ma JOSEFA LIZUNDIA ZABALETA

2015eko apirilaren 24an hil zen, 82 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ESKERTZA

AGAPITA MAULEON MARTINEZ

2015eko apirilaren 27an hil zen, 92 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



2 zapatua

Kirola

18:30 Aizkora txapelketa
Sigmako probalekuan.

3 domeka

Ospakizuna

12:30 Santa Kurutz eguna

Meza egingo dute San Rokeko ermitan, eta ondoren, bedeinkazioa egongo da.

8 barixakua

Erakusketa

18:30 'Bame logika'

Ongarri argazki taldeak antolatuta, Carmen Hierroren artelanak jarriko dituzte ikusgai, Kultur Etxean. Hilaren 23ra arte egongo da ikusgai.

Aisialdia

17:30 Kiribil

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaikea aisialdi taldeak antolatuta, Maalako parkean.

Bideo forum

21:30 'La buena estrella'

Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 -24:00	24:00 - 09:00
30 Oruesagasti 1 Barrenetxea 2 Garitaonandia 3 Garitaonandia 4 Etxeberria 5 Fernandez 6 Yudego 7 Oruesagasti	Astelehenetik igandera Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«Mortdecai»

- 1, barixakua: 21:30
- 2, zapatua: 19:00 /
22:15 (VOS)
- 3, domeka: 19:00
- 4, astelehena: 21:30

«El libro de la vida»

4, domeka: 16:30


«Itsasoari begira»

7, eguena: 20:30



Ludotekako VI. Aste Nagusiko **kartel lehiaketa** martxan dago. Konsultatu oinarriak ludotekan. Sariak daude irabazleentzat.

Asanbladan **udalekuak** antolatzea erabaki dugu. Etorri eta animatu zure iritzia ematera.



GORA MAIATZAREN LEHENA!

LANGILEOK BORROKAN
Euskal Herria aldaketa bidean

ESKUALDEKO MANIFESTAZIOA EIBARREN
12:00etan Untzaga plazatik

Ondoren EKITALDIA eta HERRI BAZKARIA
Untzagako arkupean
Txartelak salgai LABeko Eibarko egoitzan
(Bidebarrieta, 1) • 943 82 04 89

LAB

Gipuzkoako
Partaidetzako
Aurrekontuak

2 MILIOI euro
DEBABARRENA hobetzeko

Egin zure proposamena www.aurrekontuahobetzen.eus
webgunean eta parte hartu zure herriko tailerlean:

· MENDARO Maiatzak 7, osteguna, 19:00etan, UDALETXEAN

Antolatzailea

Zuk erabakitzen duzu!



www.haurreeskola.net

**Matrikulazio epea zabalik
maiatzaren 4tik 13ra**

Elgoibarko Haurreskola 943 742 141



GUSTATZEN
JATA, JAKU
ELGIBARKO HAURRESKOLA



*Bihar, nire urtebetetze egunez,
erretiroa hartuko dut.*

*Eskerrik asko 31 urte hauetan
gure ondoan izan zareten guztioi.*

*Lokala alokairuan eman nahi dugu,
baina erosteko aukerarekin.*

Harremanetarako: 943 755 058



IES Elgoibar-Arreiturre BHI

Batxilerrerako Aurrematrikulazioa

Maiatzaren 4tik 14ra

Gurasoentzako Informazio Biler

Maiatzaren 5ean Elgoibar-Arreiturre
institutoan (Ezenarro eraikinean)
arratsaldeko 18:00etan



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURAREN SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



KT-n heldutasun-maila
ERTARAIN duen ikasketetara



Euskadi
2004

Telefonoa: 943 748 397 E-posta: 013431@hezkuntza.net
www.elgoibarbhi.eus